

1997-6-29

Meza Ereñotzun, apaiz egin
zeneko 50.urteurrena dela
medio.



DON JUAN

Ereñotzuko apaiza

JOSÉ ANTONIO URDANPILLETÁ ORMAETXEA

lazko S. Pedro egunez ospatu zituen bere apaizgintzako "Urrezko Ezteiak". Senitarteko eta herritarrez inguraturik, berrogeita hamar urte luze bezain oparoen emaitza gozo eta pozgarria dastatzeko aukera izan zuen D. Juanek. Baita guk denok ere berarekin batera. Aldi luze horretan bere kargura izan duen Ereñotzuko S. Antonio parrokian jai pozgarri eta argitsua izan genuen: D. Juani eskerronez ezezik, oraindik ere puska batean gure artean izateko eskariz. Bai, ospaketa ederra izan zen, alde aldekoa eta gure D. Juanek merezi bezalakoa.



Aukeran berandutxo gabiltza bere apaizgintzarako 50. Urteurrenaren aipamena egiten. Dena den, badakigu interesatuak konprenitzen gaituena. Gainera, gure asmoa iazkoari begiratu baino beste hau da, horren aitzakian D. Juan berarekin elkarriketatxoa eduki. Hortaraxe etorri gara propio bere etxera.

Egun on, D. Juan.

Baita zuri ere.

Non eta noiz jaioa zara, D. Juan?

Hernanin, 1922ko Urtarrilaren 13an. Orduan eman nion hasera nire bizitzari, ia urte berriarekin batera. Kale Nagusian eta eguerdiko 12etan, Bataioko agiriak dioenez.

Esango al dizkidazu zure gurasoen izenak?

Aitarena "Zelestino", andoaindarra bera; amarena, berriz, "Ixabel", Ataungo S. Gregorio auzokoa. Amaren aldeko aitonari, ogibidez mikeletea, etxea erre omen zitzaion eta bizibeharrak Hernanira ekarri bizitzera bere familiarekin. Nire ama umea zen artean. Gerora Hernanin ezagutu zuten elkar eta ezkondu ziren.

Zenbat senide izan zarete?

Hiru. Zaharrena ni, gero arreba bat, Mari Karmen, iadanik hila, eta anai gazteena, Joxe Mari.

Garai hartan izan ohi zen modura, artean nahiko ume izanik joango zinen noski seminaria.

Hamairu urte nituela.

Esango al zeniguke nola sortu zitzaizun apaiz izateko gogoa?

Bueno, lehenik eta behin nik esango nuke beste apaizen bitartez. D. Jose Maria Oiarzabal "Hospitala" zeritzan gaiso-etxeko kaperau zela, ni bere monagilo izan nintzen eta berak izan zuen eraginik nigan. Baita Hernaniko parroko D. Migel Mendikutek ere. Beronen bidez hasi nintzen estudiatzen.


Era berean esan behar da, gurasoen laguntzaz. Euskal Herrian orduko ia guraso guztientzat bezala nire aita-amentzat ere gauza haundia zen seme bat apaiz izatea. Beren animoa ere izan nuen apaizgai izateko. Hori bai, askatasun osoan.

Eta "hamahiru urteko mutila" nora joan zinen?

Deba eta Ondarru artean zen Saturrarango seminaria, 1935eko Irailean. Bertan lau urte egin ohi zituzten apaizgai gaztetxoek. Guk, ordea, bat bakarra egin genuen, 1936an gerra zibila hasi zelako. Bigarren urtea Donostian egin genuen. Bertako eta inguruko apaizgaiok D. Benanzio Izeta apaiz-irakasleak hartu gintuen Artzai Onaren kriptetan, horrela ez genuen hutsegini bigarren kurtsoa urrutiagoko beste zenbait ikaskidek bezala. Hirugarren urterako, berriz, iadanik "nazionalak" zeritzanak Hernanira sartuak ziren, Bergarara joan ginen. Bertan, Gasteizko seminaria soldadu zaurituentzat behin behineko "hospitala" bihurtua zegoen. Hemen bi urte eman genituen, "Latin edo Humanidades" deituriko 3. eta 4. urteak. Ikasketa horren 5. eta azken urtea Gasteizko seminarian bertan burutu genuen. Hor bertan egin genituen ondorengo ikasketak ere, Filosofia -hiru urte- eta Teologia -lau urte-. Karrera egina genuela, hiru hilabeteko prestaldia

1933

Don Juan San
Ildefonsok M^a Jesus
Leterekin hartu
zuen parte
haurrentzako
aureskuan.



izan genuen bidaliko gintuzten parrokieta behar bezala egokitzeke.

Hiru hilabete horiek bukatu bezain laster apaiztu zinen?

Ez, ez, aurretik. Teologia ikasketak bukatu orduko. Hiru hilabeteko prestaldi horri guk eman genion hasiera hain zuzen, apaiztu ondoren. Gerora kendu egin zuten.

Meza-berria Hernanin eman zenuen, noski, herriko seme bezala.

Hernanin, bai. 1947ko Uztailaren 20an.

Zer oroitzapen gordetzen duzu egun horretaz? Egun haundia, dudarik gabe.

Ba pentsatu, garai hartan guretzat egunik haundienetako. Apaiz-berri izatea umetandiko ametsak, bideko gorabeherak gorabehera, azkenean burutzea zen. Bai, egun haundia izandu zen. Jaialdi haundia. Herritarrez gainezka.

Eta apaiztu ondorengo lehen destinoa?

Apaiztu eta lehen destinoa Araba izaten zen garai hartan. Arabako herriskaren batera joaten ginen gehienok. Kontuan izan behar da orduan Euskal Komunitate osoak Elizbarruti bakarra osatzen zuela. Hori horrela apaiz-berri askori egokitzen zitzaigun arabar destinoa.

Arabako zein herritan aritu zinen apaizgintzan?

Barrón eta Artaza herrisketan.

Zenbat denbora egin zenuen Araba aldean?

Sei, ia zazpi urte. Ohi baino denbora gehiago egin nuen eta esango dizut zergatik. Barrón eta Artazara joan ondoren gertatu zen ordurarteko Elizbarruti bakarraren partiketa hirutan, Probintzia bakoitzeko Elizbarruti bat. Eta Bueno Monreal Gasteizko gotzainak, gerora Kardinal izanak, hainbat apaiz gipuzkoarroi geunden herrisketan urte batzuk gehiago gelditzeko eskatu zigun eta hala egin genuen.

Beraz, bihotz-zabal jokatu eta Arabarrei eman zenizkien zure urte batzuk.

Ba bai.

Eta gero zure herrira.

Bai, gero nire herrira. D. Pedro Madinabeitia, Hernaniko koajutore eta "Hospitaleko" kaperatu artean, oso laguna nuen. Berak esan zidan: "Haizak, badakik Hernanin koajutore bat falta dela eta une



berean Ereñotzu serbituko duena. Zergatik ez duk eskatzen postu hori? Bestela edonorako prest nengoen, baina haren proposamen hori medio, Sudupe jaun Bikario Jeneralari eskatu nion. Horrela eman zidaten Hernaniko koajutore eta Ereñotzuko arduradunaren izendapena.

Gogoan izango duzu ze urtetako kontua den hori?

Bai, nola ez! 1954. urtekoa.

Eta zenbat urtez jardun zenuen koajutore gisa?

Hamar urtez. Hamarkada honen azkenaldera, oso detailez hainbat gauza ahaztuxeak badituz ere, orduko S. Antonio ermitaz asmo berriak egiten hasi ginen bat baino gehiago. Elizatxo honen inguruan "mobida" dextentea zegoen: S. Antonio jaietan jende asko, bikote askoren ezkontza leku, etab. Zergatik ez ekin ermita haunditu eta parrokia izendatzeari? Eta hasi baginen hasi, jatorrizko lau paretak utziz gainontzeko guztia berritu, haunditu eta gurutzadurako planta atera arte ez genuen etsi. 1964ko S. Antonio bezperan D. Lorenzo Bereziartua gotzainak inauguratu zigun ermita, kanpo eta barru ur bedeinkatuarekin ondo ziurtatuz eta "parroki" izendatuz.

Orduan esan zidan D. Lorenzok ea zer nahi nuen: parroko gisa bertan segitu, Hernanin koajutore edo beste norabaiteko destinoa. Nik, berriz, oraindik

1934

Don Juan bere ikaskideekin eta Don Jose Gay Mur bere irakaslearekin.

gazte nintzenez, hemengo jendearekin harreman ona nuenez, oso gaztedi jatorra eta lanerako gogoia ere bai, ba gustora geldituko nintzatekela bertan parroko gisa erantzun nion. Horrela parroko izendapena jaso nuen eta bertarako gelditu.

Eta gaur arte holaxe.

Bai, gaur arte.

D. Juan, nola ikusten duzu zuk denon ahotan ezezik bihotzetan ere dabilen gaurko Eliza zein gizartearen krisialdi latz eta gogor hau? Alegia, zuek batipat bi mundu hain desberdinak ezagutu dituzue, hain desberdinak! Zuk apaiz bezala, kristau bezala eta gizarte hontako gizaki modura ze inpresio duzu guzti honi buruz, zer da hau, nola hartu beharko genuke krisialdi hau, nola jasan, eta batez ere nola erantzun beharko genioke etorkizunari begira?

Ba begira, nik bi alderdi ikusten ditut mutur banatakoak: lehen, Elizak egundoko itzala zuen gizartean, bai apaizon aldetik -jauntxo izateraino- eta bai jendearen aldetik, helduek nahiz gazteek eliza betetzen zuten, sakramentuetan parte hartu,



1947-7-20

*Don Juan lehen meztatik irteten.
Hernaniko Parrokian.*

1964-6-20

*Ereñotzuko San Antonio Parrokiaren
inaugurazio ekitaldia, Don Lorenzo
Bereziartua Gotzaina bertan zela.*

1965

*Neska-mutil taldea bere lehen
jaunartzean.*

gazteek eliz-elkarte biziak osatzen zituzten (Luistarrak, Mariaren Alabak, banderen bedekapenak, eskursioak...). Oro har, giro jator eta gustagarria zen hura, nahiz eta ordurako hasita egon zabaltzen gure Herriaren arazo politikoaren konzientzia. Orduan, gu denon ahalegintxoak luzitu egiten zuen berea.

Orain, aldiz, -urte batzuk ezker- guztiz aldatu zaigu dena: eliza ia hutsik, gazterik ez, ume gutxi.... Honek hondamendia dirudi. Eta jende asko halaxe delakoan dago. Krisialdia latza eta gogorra denik ezin ukatu. Baina hondamendia ez. Fededunak ez du etsitzen eta baditu: begiak, bihotzekoak batipat, aldi berri hauei alderdi onak eta txarrak bereiziz ikusteko eta begiratzeko. Ereinaldia etorri zaigu, itxaropenaldia, apalaldia. Lehengoak ere bazuen bere errena, eta nolabait esateko tradiziokeria deituko nioke: tradizioz jasotako fedea norberak bere berea egitea deskuidatzen genuen puxka

bat. Vaticanoko II Kontzilioak erren hori sustraitik sendatzera jo du. Enpresa hau gainera, azken batean, ez daramagu guk, Jaungoikoak baizik. Eta Beronen aztarrenak gaurko gizarte sekularrak ere baditu. Elizaz "kanpo" ere gauza on asko ikus genezake: gaiso eta zaharrekiko zainketa, langabetuekiko solidaritza, Bakearen eta Justiziaren aldeko sentiberatasuna, etab. Hori bai, kristauok gizamaila soileko salbamenaz gain Kristau Salbamen osoa aldarrikatu behar dugu, baina biak kontrajarri gabe eta ongiaren ondarea guri bakarrik dagokigula pentsatu gabe.

Kristau laikoen aipamena egin nahi dizut eta kristautasunaren etorkizunerako beroiek izango duten inportantzia galdetzen.

Dudarik gabe kristau laikoen inportantzia erabakiorra izaten ari da eta hala izango da etorkizunean. Berez dute kristau laikoek, gizonek bezala emakumeek, hain inportantzi handia,



nahiz eta orain halabeharrez ari diren hartzen. Nire ustez Elizak oraindik ausartago izan beharko luke kristau laikoei erantzukizuna, askatasuna eta erabakitasuna ematerakoan. Alegia, laikoei ez dutela izan behar apaizen morroi-mirabeak. Honek heziera suposatzen du eta lan hori egiten ari gara. Denon aldetik mentalitate aldaketa haundia eskatzen du. Lehen dena apaizak egiten zuen eta denok halaxe izan behar zuelakoan geunden. Gaur ez dugu horrela ikusten. Gainera, iritzi askotan bai Jainkoari eta kristau izateari buruz, joan behar dugu oraindik asko aldatzen.

Aurrerago aipatu ereintzak hemendik jo behar du. Kristaudia gutxitzea, elizan oso jende gutxi izatea ez da eskuak burura eramateko, geroz finago eta

sakonago lan egiteko baizik gure esku dagoen guztian. Jesusek ere ez zituen asko berarekin, baina talde txiki hura bizia zen. Eta gainontzean zera izan behar dugu gogoan beti: Jaungoikoa aita dugula, seme-alaba bezala maite gaituela, ahalguztiduna eta guztiz ona, gizon-emakume guztiekiko onginahia duena. Guk ereindakoa Berak bihurtuko du bere garaian uzta oparoa.

Elkarriketa askoz gehiago luzatu dugu makina bat kontu esanez. Denak jasotzerik ez daukagu hemen eta jasotako hau izan bedi D. Juani herritar guztiok egiten diogun eskerronezko omenaldi txiki bat. Oraindik urte askotan bere presentzia eta zerbitzua gure artean izateko zorian izan gaitezela. Eskerrik asko, D. Juan! ♦